



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
2016/03/21

## **Aldundiak "1.812.264" euro bideratuko ditu aurton Bizkaibuseko lau emakida "hobetzera"**

Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Sailak, aurten Bizkaibuseko zerbitzuan daborduko sartu diran hobekuntzen barri emon dau. Batzarretako EH Bildu taldeak eskatuta Vicente Reyes sail horretako arduradunak egin dauen agerraldian, lau emakidetan eragina izango daben zerbitzu aldaketan barri emon dau Batzar Nagusietan. Aldaketa horreek "1.812.264 euroko" kostua izango dabe, eta Aldundiaren eta Bizkaibuseko bost sindikatuen artean 2015eko apirilean sinatu zan akordioaren ondorioz jarri dira indarrean.

Diputatu jaunak beste "560.903 euro" gehitu deutzaz kopuru horri, kontratu barrietan izandako "bidaiarien doikuntzaren" kontzeptua dala eta. Kopuru biak gehitzearen emaitza-"2.473.167 euro"- da 2015ean Bizkaibuseko zerbitzuan gauzatu zanaren eta 2016ko aurrekontuetan sartu danaren arteko aldea "79,1 milioitik 81,5 milioira", hain zuzen be.

Reyesek Batzarretako taldeei azaldu deutzenez, aldaketek "modu desbardinetan" izango dabe eragina Bizkaibuseko lau emakidetan. Ezkerraldeak eroango dau kopuru nagusia, "959.468 euroko" aldaketakaz; Busturialdean "190.621 eurokoak" izango dira; Enkarterrin "279.492koak"; eta Txorierrin, barriz, "382.681 eurokoak".

Ezkerraldeari jagokon kopuruari, "1 klaseko lau autobus" gehitzearen kostua gehitu behar deutso Garraio sailak. Horreetako bakotzak "43.708 euroko" kostua izango dau urtean, Reyesek esan dauenez. Lineei jagokenez, Aldundiak maiztasunak handitu ditu Termibus-EHU eta Bilbo-Santurtzi lineatan. Bilbo-Sestao-Errepelaga zerbitzu barria gehitu da, eta berreskuratu egin da Barakaldoko Urban ingurutik egiten zan ibilpidea, Portugaleten dagoan Ballontiko merkataritza guneraino helduz. Ganera, A3137 Bilbo-Barakaldo linea sortu da, eta zerbitzu gehiago eskaintzen da Gallarta-Santurtzi, Bilbo- Muskiz eta Bilbo-Abanto – Zierbena lineatan.

Reyesek adierazo dauenez, ganerako eskualdeei jagokenez, aldaketek eragina izango dabe urte osoan Bilbo-Amorebieta-Gernika linean, billeteengaitiko diru-sarrerak kendu ostean "190.621 euroko" kostua dauen express zerbitzuagaz. Zerbitzu horrek "1. klaseko autobus bi" sartuko ditu, eta horreen urteko kostua "72.853 eurokoa" izango da.

Sailaren buru gisa daroan denporan martxan jarri dan hobekuntzen pakete horren barruan, aireportuko linea be indartu egin dala adierazo dau Reyesek, garagarrian eta abuztuan maiztasuna handitzeko, eta, Txorierriko emakidaren barruan, Plentzia-Gorliz-Mungia linea sortu dala. Jarduketa bi horreek, billeteak saltzeagaitiko diru-sarrerak kendu ostean, "382.682 euroko" kostua izango dabe.

Enkarterri inguruan, barriz, geraleku barria egongo da Balmaseda-EHU lineako Gurutzetako Ospitalean. Hori dala eta, "12 klaseko" unidatea sartu da, eta horrek "279.493 euroko" kostua eragin dau.

Oposizinoaren erantzun-eskeei erantzunez, aldaketa horreek sindikatuakaz lortu dan akordioa dala eta eta udalerrien eskari batzuk kontuan izan diralako sartu dirala adierazo dau Reyesek.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Bere berbetan, aldatok sailak garraio publikoa hobetzeko aurrera daroan “etenbako” azterketari erantzuten deusie. Horretarako, ahalegin asko eta asko egin behar izan da baliabide publikoei “ahalik eta etekin handiena atarateko”. Diputatuak adierazo dauenez, une honetan Bizkaia ez dauka “preminazko” beharrik Bizkaibusi jagokonez.

#### ALDAKETE A BARIK TXARTELAREN INFORMAZINORAKO TELEFONO ZENBAKIAN

Batzarretako EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek Bizkaiko Batzarretan jakinarazo dabenez, Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP-CTB), “94gaz” hasiko dan informazinorako telefono zenbakia aktibauko dau “datorren astetik” aurrera, Barik txartelagaz erlazonautako informazino eskariei eta kexei erantzun ahal izateko.

Iragarpen hori, PP taldeak aurkeztu dauen eta aho batez onartu dan arauz besteko proposamenaren ganeko eztabaidaren barruan emon da. Proposamen horrek eskaria egiten eutson Aldundiari, BGP-CTBn egin beharreko gestinoak egiteko, gaur egun indarrean dagoan 901 123 123 zenbakiaren orde z, erabiltzailearentzat “gain-kosturik” eragingo ez dauen zenbakia jarteko.

#### BIZKAIBUSEN MEMORIAREN ARGITALPENA

Beste alde batetik, Batzarretako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako batzordeak, legealdi honetako hamargarren bileran, Aldundiak Bizkaibusen urteko memoria egin daiala erabagi dau. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu dabenez, memoria hori formatu digitalean argitaratuko da, eta Bizkaibusen orrian jarriko da, “danon esku” egon daiten eta, aldi berean, ingurumenari lagunduko jako, ez dalako paperean argitaratuko, PP taldeak jatorrizko arauz besteko proposamenean paperean be argitaratzea eskatzen eban aren.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
21/03/2016

## **La Diputación destinará este año "1.812.264" euros en "mejoras" para cuatro concesiones de Bizkaibus**

El departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de la Diputación Foral de Bizkaia ha hecho cuentas de las mejoras que se han incorporado ya este año en el servicio de Bizkaibus. En una comparecencia solicitada por el grupo juntero EH Bildu, el responsable de este área, Vicente Reyes, ha detallado en Juntas Generales los cambios en el servicio que afectarán a cuatro concesiones por un importe de "1.812.264 euros", derivadas del acuerdo firmado entre la Diputación y los cinco sindicatos de Bizkaibus en abril del 2015.

A esta cifra, el diputado ha añadido otros "560.903 euros" en concepto de "ajuste de viajeros" por los nuevos contratos. Ambas cantidades sumadas –"2.473.167 euros"– sería la diferencia entre lo ejecutado en 2015 en el servicio Bizkaibus y lo presupuestado en 2016. La partida total destinada al sostenimiento de Bizkaibus en 2016 asciende a "81,5 millones" de euros, frente a los "79,1 millones" que fueron necesarios el año anterior, ha recordado.

Reyes ha explicado a los grupos junteros que los cambios afectarán "de distinta manera" a cuatro concesiones de Bizkaibus. Ezkerraldea se lleva el mayor montante, con modificaciones valoradas en "959.468 euros"; en Busturialdea, serán de "190.621 euros"; en Enkarterri, "279.492"; y en Txorierri, "382.681 euros".

A la cifra de Ezkerraldea, el departamento tiene que sumar la incorporación de "cuatro autobuses de la clase 1" que supondrán un coste por cada uno, al año, de "43.708 euros", ha cifrado Reyes. En cuanto a las líneas, la Diputación ha aumentado las frecuencias en los recorridos de Termibus-UPV y Bilbao-Santurtzi. Se añade, además, el servicio nuevo Bilbao-Sestao-Repelaga, recuperando el recorrido por la zona de Urban de Barakaldo y llegando hasta el centro portual del Ballonti. Además, se crea la A3137 Bilbao-Barakaldo y se aumenta el servicio en la Gallarta-Santurtzi, la Bilbao- Muskiz y la línea que comunica Bilbao y Abanto y Zierbena.

En el resto de comarcas, Reyes ha informado que los cambios alcanzarán durante todo el año a la Bilbao-Amorebieta-Gernika, con un servicio express, que tiene un coste total de "190.621 euros", una vez descontados los ingresos por billete. Este servicio introduce "dos autobuses de clase 1", con un coste anual de "72.853 euros".

En este paquete de mejoras puesto en marcha en lo que lleva al frente del departamento, Reyes ha informado también del refuerzo en la línea del aeropuerto para incrementar la frecuencia los meses de julio y agosto, y la creación, en la concesión del Txorierri, de la línea Pletzia-Gorliz-Mungia. Ambas actuaciones tendrán un coste, tras descontar los ingresos por la venta de títulos, de "382.682 euros".

Por su parte, en el área de Enkarterri, se introduce una nueva parada en el hospital de Cruces en la línea Balmaseda-UPV que supone incorporar una unidad "clase 12" con un coste de "279.493 euros".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

A preguntas de la oposición, Reyes ha indicado que estos cambios son fruto del acuerdo logrado con los sindicatos, y de tener en cuenta algunas demandas de los municipios. Responden, según él, a una análisis “continuo” del departamento con el objeto de mejorar el transporte público, haciendo un “encaje de bolillos” para “sacar el mayor rendimiento” a los recursos públicos. El diputado ha sostenido que actualmente Bizkaia no tiene necesidades “acuciantes” en lo que atañe a Bizkaibus.

#### CAMBIO EN EL TELÉFONO DE INFORMACIÓN DE BARIK

Los grupos junteros PNV y PSE-EE han informado a la Cámara vizcaína que el Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) activará a partir de la “semana próxima” un teléfono de información con prefijo “94” para atender las demandas informativas y las quejas en relación a la tarjeta Barik.

Este anuncio se ha producido en el debate de una proposición no de norma del PP, aprobada por unanimidad, que instaba a la Diputación a realizar las gestiones oportunas en el CTB para sustituir el actual 901 123 123 por un número que no suponga coste "extra" para el usuario.

#### PUBLICACIÓN DE MEMORIA DE BIZKAIBUS

Por otra parte, la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio ha acordado, por unanimidad, en su décima reunión de la legislatura que la Diputación elabore una memoria anual de Bizkaibus. Una enmienda de PNV y PSE-EE recoge que dicha publicación se elabore en formato digital y se cuelgue en la página de Bizkaibus para que esté al “alcance de todos” , al tiempo que "se contribuye a mejorar el medio ambiente" al no editarse en papel, algo que pretendía el PP en su proposición no de norma original.